# 2023KO AURREKONTUAK:
# AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

**AUZOA**: GURUTZE

| **Data** | **Hasiera ordua** | **Bukaera ordua** |
|---|---|---|
| 2022-10-05 | 19:00 | 20:40 |

**BILDUTAKOAK:**

| **Udal ordezkariak:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herritarrak:** | Euskaraz: 9 | | Elebitan: 1 | |
| | Emakumezkoak: 6 | | Gizonezkoak: 4 | |
| | <30 urte: 1 | 31-50 urte: 2 | 51-65 urte: 4 | >66 urte: 3 |

**AKTA:**

| **Gaia** | **Ekarpena eta iruzkinak** |
|---|---|
| **Aurkezpena** | Aurkezpena eginda ez da ekarpenik eta iruzkinik izan. |
| **Legegialdariaren balorazioa** | Aurreko legealdiko aurkezpena egin da.<br>. **Ganaduzaleak Larre Planan inguruan ekarpena** – auzotar batek informatu du kexaren bat dagoela lurren garbiketa nola egiten den. Lur horien kudeaketa ganaduzaleen esku uztea nola ikusten den galdetu da. Udala aztertzen ari dela esan zaio, ganaduzaleekin elkarlanean, gai hori eta beste hainbat argitzeko.<br>. **UrkabeBaita –** Honen inguruan zalantzak azaldu dira. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzan esku dagoela hastea adierazi da, Etxebidek egingo du kudeaketa eta epe motzean hasiko direla uste da. |
| **2023ko aurreikuspena** | Aurrekontuen berri eman da, ez da ekarpenik izan. |
| **Auzoa** | - Parkea berritzea positibo baloratu dute auzotarrek.<br>- Andrearriaga aldea espaloia eskatu da, auzora iristeko arriskutsua dela bide-bazterra. Baita Arkale aldera ere.<br>- Gurutzeko bidegorriari dagokionean auzotar batek aipatu du ez dela bidegorririk eskatu Gurutzen, egiten ari den bidegorriarekin ez dagoela |

| | |
|---|---|
| | konforme. Mugikortasuna eta segurtasun hobetzeko aukera bezala ikusi dela adierazi zaio. Aldiz beste auzotar bati aukera ona iruditu zaio. Eztabaida hau joan den urtean ere eman zen.<br>- Gurutzeko planeamenduaren inguruan lurren kalifikaziorik aldatu den galdetu du auzotar batek, momentuz ezetz erantzun zaio. Udal lurretan babes ofizialeko etxea egiteko aukera aztertu den galdetu da. Momentuz ez dago aurreikuspenik.<br>- Elkartearen aurrean zebra bidea jartzeko eskaera egin du auzotar batek.<br>- Fibra; honen inguruan informazio izateko ondorengo web-a sortu da https://www.euskadibandazabala.eus/<br>- Trailerrak Lanbarren aldera Arkaleko bidetik bidaltzen ditu gps-ak, kartela jarri zen ezin zela pasa baina errotonda inguruan edo jartzea eskatzen da, sartu baino lehen ikusteko moduan.<br>- Santiago bidea pasatzen den bidea, depuradorakoa ez dagoela batere ongi. |

**BALORAZIO ORRIA:**

| | |
|---|---|
| Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak | 8,63 |
| bilera ongi gidatu da | 8,38 |
| Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna | 8,5 |
| Auzotar kopurua | 5,75 |
| Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten) | 8 |
| Saioa probetxugarria izan al da? | 7,5 |
| Egunaren egokitasuna | 9 |
| Orduaren egokitasuna | 9,13 |
| Lekuaren egokitasuna | 8,13 |